

Mendafin usaineko iluntzeak

Gozoak izango dira ezinbestez mendafin usaineko iluntzeak. Ilunabarrari usain fina jarriz, mendafinezko zurrutadak hartuz eta Aintzane Galardik idatzirik poemak irakurriz, ez dut uste Arabiako paradisu urrun egongo denik, eta are gutxiago hiru ekin-tzak une berean kordatzen badira.

Erein argitaletxeak publikatu du Aintzane Galardiren *Mendafin usaineko iluntzeak* lana, Blas de Otero-Bilbo Uri. Nazioarteko VII. Poesia lehiaketaren irabazlea izan zena. Hortaz, lanak saria dakar besapean, eta ongi merezita.

Ekialde hurbileko giroan murgildu nahi gaitu Galardik, gustukoa baititu hango mintzairak, hango kalekka, usainak eta aho-tsak. Eta horrek guztiak bertako espazioak deskubritzeko tankera luzatu dio egileari poemen bidez: "...zain neuzkan nire lehen bidaia hartako arrats eta goiz guztiak, non, Medinako kalekka estuak, beste garai bateko jendea, hizkuntza arrotzak, basamortua, nomaden urratsak eta deslekuak kausitu nituen. Gerora, Marokora itzuli naitzen bakoitzean, zain izan ditut, Atlas mendikate elurtua, mendi azokak, oasiak, gauaz haraindiko palmondoak, mila eta bat alfobren koloreak..." eta mendafin usaineko iluntzeak".




Ibaiari Begira

Marina Aoizek 1986tik 2011 bitartean idatzitako poemak dituzte *Mivar el río-Ibaiari begira* izeneko liburuan. Gaztelaniazko testuak Iñaki Bastarrikak ekarri ditu euskarara.

Natura irakurtzen dugu poemetak inspirazioaren oinarri gisan, jakingarri asetzeko bide adierazgarrian. Errekek, loreak, itsasoak, eta nola ez, lurra bera, denek osatzen baitute bizitzaren kate ezinbestekoa. "...bizitza bere tristuran eta alaitasunean maitatzea/ batez ere neure burua bizitzari ematea/ ni neu naretzea maitatzea eza-gutzea/ bidean aurkitzen dudana maitatzea/ zauririk ez eragitea/ ogia eta laz-tanak partekatzea/ begietan armiarma-sarerik ez izatea/ gauzak argi ikusi ahal izateko".

Kantauk dira bere poemak, basteen gaituen lurrari eta biziaz-razten gaituen korronteari eginito kantu sakonak, eta poemarioen tituluetan atzeman daiteke hori: *Lur sekretua*, *Obsidiana pusketak*, *Argiaren dohain*, *Unearen kodeak*, edota *Gnesia*.

Zoriontasunaren deklamazioa idazten du lerroetan: "Zoriontsu, zoriontsu denboraz eta urez eginito ibaiari begira ahal izateagatik".



Ezagutzen ez dugun Azkueren figura

Jurgi Kintanak *Azkuere ezaguna* (Erein) izeneko lana idatzi berri du. Obra honek Bilboko Udalak antolatutako Miguel de Unamuno XV. Saiakera Lehiaketaren 2014ko deialdiaren euskarazko modalitateko saria jaso zuen.

Berarekin mintzatu gara lanaren nondik norakoak eza-gutzeko.

—*Azkuere ezaguna* (Erein) izeneko lana aurkeztu duzu duela gutxi. Titulua deigarria da. Azkuere ezaguna al da?

—Euskaltzaleen mundetik kanpo bai, nahiko ezezaguna. Adibidez, Bilboko kaleetan Unamuno nor den galdetuko bagenu jende gehienak emango luke erantzun gutxi-asko itxuroso bat. Baina Azkuere galdetuz gero jende gehienari pertsonaia erabat ezezaguna egingo zaio. Azkueren entzutea dutenen artean ere oso gutxi lotuko dute Bilborekin. Eta hori Azkuere Unamunok baino harreman estuagoa izan zuela Bilborekin: hogeita lau urterekin hiri honetan kokatu zen, eta bi-zi osoa igaro zuen bertan, Bilbon lan eginez, eta Bilboko bizitza publikoan aktiboki parte hartuz.

—Lana prentsa aurrean aurkeztu zenuen egunean, Azkueren figura errebindikatu nahi izan duzula esan zenuen. Errebindikatu behar dira gaur egun honelako figurak Euskal Herrian? Eta Azkueren kasuan zergatik?

—Argi dago pertsonaia historikoen errebindikazioa ez dela lehentasun bat. Baina memoriarik inguruko politika publikoak diseinatzen diren heinean, Azkuere ere izan beharko luke bere tokia. Bereziki Bilbon. Gure hiriko kale eta plazetan, adibidez, ohorezko lekuan ageri dira, besteak beste, Sabino Arana, Unamuno, Jose Antonio Agirre, Ramon Rubial edota Azkuna bezalako figurak. "Unamunoren eguna" moduko ekitaldiak ere urtero ospatzen dira udal agintarien ardurapean. Aldiz Azkuere ez du maila horretako aitortzarik jaso. Badu Bilboren periferian kale txiki bat, baina bere izeneko fundazio bat ere Deustuko puntan. Baina hiriko bihotzetik oso urrun.

—Zein zen benetan, eta zure uestez (bikainki aztertu ostean) Azkuere pertsonaia? Bere figuraren gaineko zertzelada batzuekin erakutsi ahal diguzu?

—Azkuere apaiz tradizionalista gisa aurkezten zaigu sarri. Eta egia da Azkuere apaiza zela, eta euskal kultura tradizionala as-



Jurgi Kintana idazlea. Iker Ugaldere argazkia



ko maite zuela. Baina Azkuere ez zen, topikoak dioten bezala, iragankor munduari begira bizi zen gure ematen dute, garaia hobeto ezagutzeko eta batak eta besteak erreallitate horren aurrean nola jokatu zuten ikusteko. Funtsean, Unamunok zein Azkuere Euskal Herri tradizionala krisian murgiltzen ikusi zuten (foruen galera, industrializazio bortitza, baserri munduaren gainbehera, euskararen atzerakada...), eta biak saiatu ziren, bakoitza bere modura, krisi horri erantzuten.

—Azkueren ondoan beste eruditur inportante batzuk aipatzen dira: Ramón Menéndez Pidal, Hugo Schuchardt, Pio Baroja, Federico Krutwig, Sabino Arana, ... Nolako harre-

"Azkuerentzat Euskaltzaindiak, euskara ikertzeaz eta arautzeaz gain, sozialki ere sustatu behar zuen"

te dotorectara hedatu. Euskaldun menditarra euskaldun hiritarra bihurtu gura zuen Azkuere.

—Unamunorekin erkaturik abiatu duzu lana, Azkuere Bilboko eta Euskal Herriko historiaren testuinguruan kokatuz. Unamuno pieza garrantzitsua da Azkueren figura ulertzeko?

—Azkuere eta Unamuno urte berean jaio ziren, 1864an, eta biak Bizkaian. Horrek esan nahi du mundu berbera, garai berbera eta arazo berberak eza-gutu zituztela. Izatez beren bizitza behin baino gehiagotan gurutzatu ziren. Beraz, figura biek, bata bestearen aldamenean jarrita, kontraste interesga-

man izan zuen guztiekin? Beste batzuk ba al daude?

—Azkuere pertsona adeitsu izan zen eta harreman ona izan zuen jende askorekin, baita ideietan aurkari zituenekin ere. Sabino Aranarekin, adibidez, ideologia abertzalea partekatu zuen. Baina Azkuere ez zen alderdi-gizona. Gurago zuen politika publikoan aritu barik kultura arloan jardun. Pidalen eta Schuchardtekin hizkuntzalaritza lotutako harremanak izan zituen nagusiki. Pio Barojarekin eztabaida publiko bat izan zuen, baina handik urte batzuetara adiskidetu egin ziren. Harreman hauek, eta izan zituen beste askok (Jo-



"Azkue garaiko munduan oso figura zentrala izan zen"

se Antonio Agirre lehendakariarekin, Dodgson ingeles ikertzailearekin, etab.), argi adierazten dute Azkuere garaiko munduan oso figura zentrala izan zela.

—Euskaltzaindiaren sorreran esku aktiboa izan zen Azkuere. Zer-nolako bultzada eman zion entitateari hasierako urte ilun haietan?

—Euskaltzaindia ez zuen Azkuere bakarrik sortu, baina berria izan zen, euskaltzainburu gisa, Akademiaren motorra 1919-1951 artean. Azkuere-entzate Euskaltzaindiak, euskara ikertzeaz eta arautzeaz gain, sozialki ere sustatu behar zuen. Euskararen alde arituko ziren erakunde publikoen gabezia erabatekoa zen garai batean, Euskaltzaindiak hutsune instituzional bat bete zuen, nahiz testuinguru negatiboa tarteko erakunde indar gutxi izan uen hartan. Bestalde, Azkuere Gerra Zibilaren ostean ere Euskaltzaindia berririkiteza eta bizirik mantentzea lortu zuen. Hala, hurrengo euskaltzale belaunaldi euskararen alde ari-zeko tresna garrantzitsua bat lagazien.

—Horrelako lan sakonetan, anekdota gutxi kabitzen dira agian, baina ikerketa sakona eginez horrelakoak ere maiz agertuko zitzaizkizun.

—Badira bere bizitzako anekdota xeble batzuk. Aipagarriena, agian, bere heriotzarena da: 1951. urtean Bilboko ibaira erori eta bertan irentsita-ko ur kutsatuaren eraginez hil zen. Azkuere amesten zuen Ibaizabal euskaldunaren toki frankismopeko Nervión pozoitu hark hil behar euskaltzainburua! Baina pasadizoetatik haratago, niri deigarriena Azkuere beraren malgutasun eta irekitasun pertsonala egin zaizkit. Bera apaiz katoliko ortodoxo bat zen, ideologikoki jeltzaleengandik gertukoa. Baina hala ere, euskararen alde egitearren, joera politikoz gurtietako pertsonekin elkarlana bilatu zuen, baita ideologikoki antipodetan zituenekin ere, hala nola errepublikarrek eta sozialistekin. Izan ere, Azkueren ikuspegian euskararen kausa euskal gizarte osoari zegokion, alderdikeria ororen gainetik.

Juanra Madariaga